

GRADU AMAIERAKO LANA (GrAL) 2023-2024

<https://www.ehu.eus/eu/web/letren-fakultatea/gral-arautegia>



Zer da?

- o Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, 861/2010 Errege Dekretuak eraldatuta, III. kapituluan, graduko ikasketa ofizialei buruzkoan, xedatzen du ikasketa horietan, **gradu amaierako lan bat egin eta defendatu beharko dela eta beste atal batean gehitzen du gradu amaierako lanak 6 eta 30 kreditu bitartean izango dituela, ikasketa planaren bukaerako fasean egin beharko dela eta tituluari lotutako gaitasunen ebaluazioa egitera bideratuta egon beharko dela.**

Eta UPV/EHU-n?

EHUko arautegia (berria), Euskal Herriko agintaritzaren Aldizkarian argitaratua (EHAA), 67 zk, 2015eko apirilaren 13an. 2,1. art:

“Proiektu, memoria edo azterlan **orijinala**, ikasle bakoitzak, **banaka** egina, **zuzendari** baten edo gehiagoren gidaritzapean. Bertan graduko ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira”

Eta Letren Fakultatean?

- o 6 kreditu titulazio guztietan (150 ordu)
- o Bigarren lauhilabetean (Gradu ezberdinen Irakaskuntza planen arabera)
- o Ezaugarriak (zenbat orrialde, egitura, etab.) Zentruko araudiaren I Eranskinean agertzen dira.

Arautegia

- o UPV-EHUko araudia
- o Letren Fakultateko araudia
- o Ezberdintasunak Gradu bakoitzeko eranskinetan, gaitasunen arabera:
 - o Geografia eta Lurralde Antolamendua.
 - o Ingeles Ikasketak
 - o Euskal Ikasketak
 - o Filologia
 - o Historia
 - o Artearen Historia
 - o Itzulpengintza eta interpretazioa

Letren Fakultateko Gradu Amaierako Lanaren ezaugarri formalak

o 1go eranskina

Tutorearen txostena

- o 2. eranskina

- o Balioespena: GAI / EZ-GAI

Epaimahaiaren ebaluaketa errubrika

- o 3. eranskina
 - o Ebaluatuko diren gaitasunak
 - o Ebaluazio irizpideak
 - o Gradu bakoitzak bere ebaluaketa errubrika du

PROZESUA

- o Matrikula
- o Hautaketa
- o Esleipena
- o Lana burutu
- o Entrega
- o Defentsa

1.- Matrikula: GrAL-a matrikulatzeko baldintzak

- o Ikasketa Plana amaitzeko behar diren ikasgai guztiak **MATRIKULATUTA EDUKI BEHAR DIRA.**
- o Matrikulak bi deialdirako eskubidea emango du ikasturte batean

2.- Hautaketa: gaia eta tutorea hautatzeko: **GAUR**

- o Eskaintzen diren gaiak kontsultatu eta aukeratzeko, GAUR erabiliko da
- o Epea: urriaren 23-27 artean

3.- Esleipena

- o Ikasle bakoitzak 15 izenburu aukeratuko ditu, lehentasun ordenean
- o ikasle bik edo gehiagok izenburu bera aukeratzekotan, ikasle hauen batz besteko espedientearen **nota** kontuan izanda egingo da esleipena
- o GAUR-ek mezua bidaliko dizue erabateko esleipena jakinarazteko
- o GIH, diru-laguntzak
- o Gaiak Hitzartu?

GrAL-aren esleipena. Oharra

- o GRAL-a egiteko erabiliko den **hizkuntzari** buruz kontuan hartu: gradu batzuetako ikasketa planetako memorian GRAL-a, derrigorrez, hizkuntza zehatz batean egin behar dela esaten da (Ingeles Ikasketak eta Euskal Ikasketak)

2023-2024 ikasturteko GrAL-ak

- o Orokorrean, tutore eta ikaslearen arteko lotura aldia GrALa defendatu arte luzatuko da.
- o GrALa esleitu deneko akademi ikasturte berean defentsa ez bada burutu, lotura hori hurrengo ikasturtea amaitu arte luzatuko da beti ere alde biak ados badaude. Kasu horretan ez da ezer egin behar.
- o Aurreko ikasturteko tutorearekin edota gaiarekin jarraitu nahi **ez** bada (lotura deuseztatzeko):
 - o Lotura deuseztatzeko, idatzi bat aurkeztu beharko da Akademia Antolakuntza Dekanordetzan uko egitearen arrazoiak azalduz.
 - o Alde batek edota besteak egin dezake uko egiteko eskaera
 - o Gaiak eskaini eta hautatzeko prozesua **hasi orduko** egin behar da. 2024ko **Irailak 13an** amaituko da epea.

4.-GrAL-aren entrega eta defentsarako eskaera

- 1.- Ikasleak, beranduen, GrALa tutoreari defentsa eskaera egin aurretik entregatuko dio
- 2.- Ikasleak “defentsarako eskaera” egin behar du GAUR-en. Orduan aukeratuko du defentsarako deialdia
- 3.- Irakasleak informea igo behar du GAUR aplikaziora

5.- GrAL-aren entrega. Azken pausua. ADDI

- o Aurreko pausu guztiak egiten direnean ADDI-k mezu bat bidaliko dizue, 24 orduko epean (gutxi gora behera, lan orduetan egiten da), GRAL-a bertara igotzeko (pdf formatua erabili)
- o ADDI-k mezua bidaliko dio tutoreari ikasleak igo duen GrAL-a balioztatzeko
- o Irakasleak balidatzen duenean ADDI-ren bitartez banatuko zaie epaimahaikideei GrAL-a

6.- GrALaren defentsa

- o Epaimahai baten aurrean egingo da lanaren aurkezpena (3 epaimahaikide)
- o Defendatzen den lanaren tutorea ezin da epaimahaikide izan
- o Epaimahaia lanaren tutorearen jakintza arloko kidek edota antzeko arloetako kideek osatu ahal izango dute.
- o 15 minutu + 15 minutu
- o Nota defentsaren egunean argitaratuko da

Egutegia eta data garrantzitsuak

- o **Matrikulatzeko** epea: ohikoa
- o GrAL-aren **hautaketa** GAUR-en: urriaren 23-27 artean
- o Behin betiko GRAL-a **tutoreari eman** eta **defentsaren eskaera** GAUR-en:
 - o 2024ko urtarrilaren 15-19. Otsaileko deialdi aurreratua
 - o 2024ko maiatzaren 27-31. Uztaileko ohiko deialdia
 - o 2024ko uztailaren 17-19 lana entregatzeko eta 17-19 defentsa eskaera egiteko. Iraileko ez-ohiko deialdia
- o Lana ADDI aplikaziora igo (hau egin ahal izateko tutorak informea igota izan behar du):
 - o 2024ko urtarrilaren 22-26ra. Otsaileko deialdi aurreratua
 - o 2024ko ekainaren 3-7ra: Uztaileko ohiko deialdia
 - o 2024ko uztailaren 22-26ra: Iraileko ez-ohiko deialdia
- o **Defentsarako** datak:
 - o 2024ko otsailaren 12-16 artean. Otsaileko deialdi aurreratua
 - o 2024ko ekainaren 24-uztailaren 2 artean. Uztaileko ohiko deialdia
 - o 2024ko irailaren 5-9 artean. Iraileko ez-ohiko deialdia

Prozesua pausuz pausu

- 1.- Ikasleak GRAL-aren matrikula egingo du ohiko epean.
Matrikula
- 2.- Ikasleak GAUR-en ikusiko du bere graduan eskura dauden GrALen izenburuen zerrenda, bakoitza bere irakasle eta hizkuntzarekin.
- 3.- Fakultateak ematen duen epean, ikasleak zerrenda horretako 15 izenburu aukeratuko ditu, lehentasun ordenean. **Hautaketa**
- 4.- GrAL-aren gaia eta tutorea aukeratzeko epea bukatu ondoren, GAUR-ek GrAL bat esleituko dio ikasle bakoitzari, berak jarritako lehentasun ordenaren arabera eta, ikasle bik edo gehiagok izenburu bera aukeratzekotan, ikasle hauen espedientea kontuan izanda. **Esleipena**

Prozesua pausuz pausu

- o 5.- GrAL esleituta dagoenean, ikaslea dagokion irakaslearekin kontaktuan jarri behar da, lana nola egin jakiteko eta tutoria saioak zehazteko (tutoreak azkenean lanaren balorazioa egingo du Zentruko araudiaren 2. eranskina erabiliz). **Lana egin**
- o 6.- GRAL-a tutoreari entregatu eta GAUR-en defentsa eskatu dagokion epean
- o 7.- **Tutoreak** bere informeak GAUR aplikaziora igoko du
- o 8.- GRAL-a ADDI plataformara igo (pdf formatua), tutoreak balioztatzeke eta epaimahaikideei banatzeko.

Prozesua pausuz pausu

- 9.- GrAL-aren **defentsa** epaimahai baten aurrean egingo da (ikasturte honetako egutegian agertzen dira GrAL-en defentsarako erreserbatuak egunak). 3 epaimahaikide izango dira eta tutoreak ezin du parte hartu.
- 10.- Nota defentsaren egun berean argitaratuko da.

GAL-ari buruzko zalantzak
argitzeko **Ikasle eta GrAlaren**
Dekanordetzara jo (Rakel
Varela)

OSO GARRANTZITSUA!!



Eskerrik asko!